

## **Demokratikoki lortu ahal dena**

*Euskaldunon Egunkaria, 1994-06-07: 2.*

Ez naiz burrukari, nahiago dut konbentzitu bertzutu baino; komunikazio gizona naiz jitez eta ofizioz ere; sasoiari sasoiakoa pentsatu dudana gehiena idatzita utzi dut, eta ezagutu nahi nauenak hor aurkituko nau. Bestalde, ez naiz beirazkoa, kontu! Gizakiak, onenean ere, badu keriarik eta ahulezia ugari eta neuk neureak, sobera. Joan den asteko hilketa nahi dut nere modura salatu. Honela ezin dugu gure herrian funtsezko den ezer eraiki, eta bai asko ehortz. Halere, eta "baina" hau denok erabiltzen dugunez, erdalduna den egunkari batean irakurri dudanari irazkin hau nahi diot egin. Hau dio azaltzaileak: "Demokratikoki lortu ahal denean, zergatik basakeri izugarri hau!". Eta ni konforme, hau egia balitz. Baina, egia al da guk Espainiako Estatu barruan herri bezala osorik demokratikoa den giroan bizi garela? Egia da Francoz gero gauza batzuk lortu ditugula, baina gure memoria hurbilaz gogora datorkidanarekin bakarrik: 1931.eko Errepublikak, hiru urte gero sozialisten "iraultza" armatua, militarren gerra zibila eta ondoren berrogei urteko zampaketa ahaztu ezinak, eta azkenean demokrazia berriaren arrosaren aginte harropean legez irabazitako "transferentzia" ukapena. Eta noizko autodeterminatzeko oinarritzeko eskubidearen ezagutza? Non dago hemen demokratikoki aritu diren eta oraindik ari direnentzat gizalegezko ezagutzarik? Utzi tranpa, aitor Euskal Herriari zor diozuenak.